

## HH2. ZIKLOAN ETA LEHEN HEZKUNTZAN LANEAN ARI DIREN IRAKASLEEK, EZ DUTE URTE HONETAKO NOMINETAN ORDAINKETA ESKUORDETUKO TAULETATIK SORTUTAKO DIFERENTZIA ITZULI BEHAR.

Apirilean argitaratu ziren ordainketa eskuordetuko taulak. Gizarte Ekimeneko soldata taulekin alderatuz, kategoria batzuetako (HH 2.zikloa eta Lehen Hezkuntzan) irakasleen oinarrizko soldatak (lan hitzarmenekoak), ordainketa eskuordetuko kopuruaren azpitik daude.

OINARRIZKO SOLDATA	ORDAINKETA ESKUORDETUA	HITZARMENEO SOLDATA TAULA	DIFERENTZIA
HH 2. ZIKLOA IRAKASLEA	2439,06	2437,86	-1,2€
LEHEN HEZKUNTZA IRAKASLEA	2439,06	2437,86	-1,2€

Egoera honen aurrean, ikastetxe ezberdinek erabaki ezberdinak hartu dituzte eta batzuetan langileei urtarriletik hasita diferentziak itzultzeko eskatu zaie.

Injustizia egoera honen aurrean, LAB sindikatua ez da geldirik egon eta harremanetan jarri da alde batetik administrazioko arduradunekin, gertatzen ari dena azaltzeko. Beraien aldetik mezua argia izan da: ordainketa eskuordetuaren bidez jasotzen den dirua ez da itzuli behar.

Bigarren pausua Kristau Eskolarekin harremanetan jartzea izan da, identifikatu dugun egoera adierazi diegu eta hauen erantzuna ere norabide horretan izan da. Beraiek emandako irizpideen arabera langileek ordainketa eskuordetua eta hitzarmeneko soldataren arteko diferentzia, "ordainketa eskuordetuaren konturako osagarri" (complemento a cuenta de pago delegado) moduan jaso beharko luke nominan, baina **inolaz ere ezin zaio itzultzeko eskatu langileari.**

Badugu

**AUKERA**

Euskal eskola  
publiko komunitarioa  
iruten

# Info

**ZERBITZU PUBLIKOAK - Irakaskuntza – GIZARTE EKIMENA**

2022ko maiatza

Beraz, egoera horretan aurkitzen zareten irakasleok, ikastetxeak dirua itzultzeko eskatu ezkerro, jakin ez duzuela bueltatu beharrik. Arazorik izanez gero jarri ikastetxeko LABeko ordezkariekin edo LABekin harremanetan.

Izan ere LABek patronalei (Kristau Eskola, AICE-IZEA, Elizbarrutiko ikastetxeak...) eskatu die egoera zuzentzeko neurriak har ditzala.

***ANIMO ETA AURRERA!***